

Merkatuaren Segmentazioa

Gure proiektua merkatu masibo batetara zuzenduta dago. Merkatu mota honetan, antzerako beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileen talde handia dago. Bai balorezko proposamenak, bai banaketa kanalak eta bai bezeroarekiko harremana talde handi eta bakar batean oinarrituta daude, zeinak antzeko nahiak eta interesak dituen.

Gure kontsumitzaileak, aipatutako moduan, perfil ezberdina eta behar edo arazo berdinak dituzten pertsona anitzek osatzen dute, beraz, ez doa talde konkretu bati zuzenduta, talde heterogeneo eta handi bati bazik. Hala nola kirolari, adin ezberdinetako biztanle (bi bizikleta mota ditugunez, ume txikiak eta helduentzat zuzenduta), edozein kultura zein jatorrizko eta ingurumenarekin eta arazo sozialekin konprometita dauden hiritarretan pentsatu egin dugu.

Dena den, gure jardun eremua Gasteiz eta bere inguruak direnez, gure bezeroak, Gasteizen eta Zuiako zonaldeetan bizi edota gure inguruak ezagutzera datozen pertsonak izango dira; motorra, autoa edo garraio publikoa erabili beharrean, hiria edo ingurua gutxiago kutsatzeko bizikletan mugitzea nahiago duten pertsonak. Bezeroak kausarekin konprometita daudenez, hauen beharra, garraiobide seguru, eroso eta garbi bat aurkitzea da. Esan beharra daukagu, kontsumitzaile hauek bizi maila ertaina edo altua dutela, hau da, ekonomikoki arazorik ez dutela.

Aipatutako moduan, gure bezeroen perfila ezberdina da. Baina guztiek dituzte antzeko ezaugarri batzuk: ingurumenarekin eta arazo sozialekin konprometita dauden herritarrak dira eta osasuntsu mantentze dira. Bezero aktiboak direnez, beti egongo dira gure zerbitzua kontsumitzen.

Laburbilduz, espero dugu gure bezero potentzialak honako hauek izatea:

- Turistak, gure lurraldea beste modu ezberdin batean ezagutzeko prest daudenak. Era eroso, onuragarri eta azkar batean, trafikoa eta garraio eta autoak eragin ditzaketen arazoak edo gastu gehigarriak ekidinez.
- Kirolariak, kirola eta ingurumena bultzatzeko prest daudenak, bizitza osasuntsu baten alde.

- Gasteiz eta Zuiako inguruan bizi diren gazteak eta nerabe guztiak, egunerokotasunean bizikleta erabiltzera ohituta daudenak eta haien ekintzetara beste modu praktiko batean iristeko.
- Inguruan bizi diren familiak edota gure ingurunea ezagutzera datozenak, familia artean ekintza bideragarri batetaz disfrutatu nahi dutenak.